

# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

119n. Zenbakia

Orrilla  
Maiatza  
1988



## MUNGIA:

- Ur gardena
- Zugazia
- Bizilekuak
- Torrebillela
- Izadia ta jakintza

## GEREDIAGA EDO DURANGO'KO ERRIALDEA

Mendi-zalea danantzat atsegingarria da Durango-aldea, Bizkaia'n diran mendirik goitienak ingurututa egonik, ba'daualako nondik ibilli eta bai zer ikusi be. Eta, ez mendigoizaleak bakarrik, beste edozeiñentzat be badau zer ikusi ta zer ikasi Gerediaga edo Durango'ko errialde (Merindad) bikain orrek. Orixegaitik-edo, astitsu izan garan baten baiño sarriago mendi orreitako bat ikustatutera joatea, benetan atsegin izan jaku.

Orain aldi aundirik ez dala, Abadiño'ko Matiena aurrean Garai'rako bitxabala artuta bide orren ezker-aldera, goiunetxu baten aurkitzen dan Gerediaga'ko zin-baseleiza apaiñaren ondoan aurkitu gintzazan, berari argazki bat edo beste atereaz, bertatik diran ikuspegiak gozatzeko.

Oso ondo apainduta ikusiten da aintziña'ko eleiza ikusgarri ori. Ikusten danez, arduratzen dira batenbatzuk inguru edestitsu orregaz.

\* \* \*

Ikuspegi bikain orretan gengozala, batera eta bestera adi, inguru zoragarriari begira ia gure ikusmena nekatu artean, beratzaz zerbait idazteko asmoa zustraitu zan gure barrenean, nai-ta bagenkien guk baiño obeto idatzi leiken asko dirala.

Aurrera jarraitu baiño Ien, argibide bat emon edo adierazi nai dogu: "Merindad de Gerediaga" eta "Merindad de Durango", au da errialde euzkeraz, eta bietara entzun eta irakurri dogu eta, beraz, ez dakigu ziur zein izen izango dan jatorrizkoagoa, baiña, gure ustez Gerediaga'ko errialdea izango dalakoan gara, bada, Durango'ko uria Tabira'ko lurraldean sortu zan Bizkai'ko uririk geienak lez, amalau'garren gizaldian eta, ordurako ziurki, aintziñatik Gerediaga ta inguruko erriak, erriak lez biziko ziran eta bear bada errialde lez bilduta.

\* \* \*

Gerediaga edo Durango'ko errialdea, Mallabia, Zaldibar, Berriz, Garai, Arrazola, Aspe, Abadiño, Yurreta (etzan bere jatorrizko izena Irureta izango?), Izurza, Apatamonasterio, Mañaria eta bear bada Tabira eleiz-aurreak osotzen ei-eben. Eta geroago, uriak Bizkai'ko lege-barruan artuak izan ziranean edo zerbait lenago, Durango, Elorrio, Ermua eta Otsandio'ko uriak bat egin ziran, guztira amabost edo amasei Udal'egaz errialdea osotzeko.

Ordutik urte askoan be errialde ori Bizkai'ko Jaunerrian bat egin barik bizi zan, zati luzean Naparra'ko Bakalduntzaren agindupean jarraituz.

Asieran esan dogunez, Durango-alde onek zer ikusirik asko dauko, batez be oroigailu garrantzitsuak; Mundaratx, Etxaburu dorre-etxeak, baita Lexarreta aintziñako jauregi edestitsua ta ez gitxiago Astola batzar-etxe eta, erririk geien orreitan aurkitzen diran txadon edo eleiza ikusgarriak eta abar luze-luze bat.

Ikusgarri guztion zenbatza luzegi egingo litzake idazlan baten idazteko nai-ta jakingarri dan.

\* \* \*

Asieran aitatu dogun eleiza edestitsu orretan bilduten ei-ziran Gerediaga'ko errialdea osotzen eban erri-ordezkarriak, egiz eta zuzen errialdea jaurtuko ebena zin egiteko eta, jarraian Abadiño'n aurkitzen dan Astola batzar-etxean batzartzeko, errialde orretan ziran arazoak ebatzi eta bear ziran eginkizunak aintzakotzat artzeko.

Orixe zan izan be zentzunez gaiak erabagi ta betetako jokabide egokia.

Durango-aldea, Bizkai'ko lurralderik ederren bat dogu eta, ez Euzkadi'ko txarrena be, ez orixe!!, beste lurralde apain askoren aldamenean.

# GOAZEN PLAZARA

## ARAZOAK

Gizartean beti izan dira arazoak, arazo larriak, baiña gaur arazo larri orreik larriago agertzen jakuz, batez be errazoi bigaitik: Arazo orrei buruz albiste-bideak bein eta barrero, ekin eta ekin, dabilkuzalako eta geu be arazoak emoten daben mina zomatzen biziagoak garalako.

Guk ondo be ondo dakigu arazo orrei erantzun egokia emon bear dautsegula eta ori agertzen dabe aspaldion eleizetan entzun eta entzun gure belarrietara eltzen diran berbaldiak.

\* \* \*

## ZEOZER EGIN

Arazoai erantzun egokia emoteko zeozer egin bear dogu ba, eta ori izaten da gutzat burokomin-iturria.

Ba-dakigu gosez dagoan bateri zelako erantzuna emon. Berbak baiño geiago balio dautsoe bazkari edo antzeko bat emotek. Beti ezin izango dogu ori egin baiña bai noizean bein.

Baiña arazorik geienak ez dauke gure aldetik ain erantzun erreza. Zer egin geinke guk droga-zalekeriari erantzuna emoteko? Edo izukeri-bideari aurkako eritxia agertu eta bide zuzena jarteko? Edo eguneroko lanagaitik ordaintzen dauskuen sari urriegia loditzeko? Zeozer egin bear da!

\* \* \*

## PLAZARA

Eta zeozer egiteko, beste bide egokiagorik ikusten ez dogunean, plazara edo kalera urteten dogu, agerraldiak egin.

Ba-dakigu, edozelan be, artzen dogun jokabide onek be bere arriskuak daukazela, bide okerretik dabilzanak be antzeko agerraldiak egiteko, plazak eta kaleak or daukezela ba-dakigu-ta.

Geuk be ondo pentsau bearco dogu plazara edo kalera garoazen zio ori zuzena dan, gizarteari on egin-gurean kalte egin ez dagiogun. Dana dala, or daukagu berez ez ona eta ez txarra ez dan ekintza-era bat, ona naiz txarra izan daiteke asmoa zelakoa dan ikusita.

\* \* \*

## JOKABIDEAK

Agerraldiak edo plazaratzeak egiten diranean, beste arrisku bat be agertzen da: Ara joaten dan jentea bero ta urduri joaten da sarritan, agertu jaken arazo orrek ikutu bizia egiten dautselako, eta berotasun orrek eraginda sarritan egite eztabaidagarriak edo okerrak egitera sartzen dira: Ibilbideak zarratu, balioko gauzak apurtu, ilketak egin, aurkako eritxiak daukezanak jo edo iraindu... Onetan errez artzen dira erruduntzat ertzaiñak, eta poliziak errezago, euren zeregiña txarkeri orreik jazo ez daitezcan alegintzea izanik agertzaillean aurkako lez agertzen diralako.

\* \* \*

## BAKEAREN EKINTZA

Oraintsu agertu da Bizkai'ko ogei bat erritan ekintza baketsu bat bakearen aide: Izukeriaren ondoren lez ilketaren bat izaten danean, talde onetara sartzen diranak eta eurakaz alkartu nai dabenak, toki ezagun batzutan ikusten doguz bakearen aldeko iragarki bat erakusten eta orrelantxe egoten dira isillik ordu laurenean eta beste barik bakoitxa bere bidetik banatzen dira. Talde onek egin leikez, baita, antzeko beste agerpen batzuk.

Irakurleak esan daike bear ba'da, orrelan ezer ez dala lortzen, baiña gitxienez eritxi zuzen bat agertzen da, erriaren burubide zuzenai indarra emotea be ba-da, eta ori zeozer da.



## AJURIAGERRA/E.T.A.

Orain-oraintxe argitara eman dausku Pelai-Orozko'tar Mikel'ek liburu eder bat Ajuriaagerra'ri-buruz: "Juan Ajuriaagerra. Su vida, su obra, su muerte" (Ekintza; Bilbao 1987).

Liburu ederra da. Idazle ona, idazle bikaiña, idazle atsegiña bait da Mikel Pelai-Orozko.

Baiñan, egia esan..., nere ustez, merezi dau Jon Ajuriaagerra'k beste zerbait geixeago ere. Eta, egia esanaz, baita're, eska daikeogu zerbait geixeago Mikel Pelai-Orozko bezain idazle yayo bati.

Jaiotzatik eriotzarañoko bizitza-liburu bikain bat, areago oraindik, Jaiotzatik gaur egunotaraiñoko biografi sendo, yori, oso bat merezi dau Jon Ajuriaagerra'k; eta ori eskatu bear dautsagu Mikel Pelai-Orozko'ri. Iñor izatekotan, Pelai-Orozko izan daiteke ba lankizun ori apainkita dotore egin daikean eusko-lumalaria.

Oraingo ontan, bide errezetik, errezegitik, jo dau Mikel Pelai-Orozko'k: Jon Ajuriaagerra zanaren adiskide eta lagunik urbillenei galde batzuk egin dautsez, eta gero aren adiskide ta lagun oien erantzunak argitaratu dauskuz. Lan ederra, benetakoa, garratzitsua, ardura aundikoa..., baiñan ez naikoa.

Naikoa leiteke neretzat edo ni bezalako beste edozeiñentzat. Baiñan zu bezalako luma-dantzaille yaukal, goxo, atsegingarri batentzat, Mikel, ez da naikoa. Geiagoko eskatu bear yatzu.

Jagi Mikel: artu eizu zeure luma poz-emaille ori eta emon eigozu, zeugandik guztiok itxaroten dogun, Ajuriaagerra'tar Jon'en biografi zabal ori.

Eta, asiko bait zara noizbait lan ori tajutzen, barka eidazu liburu berri ortarako, neuk Ajuriaagerra'rekin izan neban gertaritxo bat, agopeko adiskidetsuan, orain agertzen ba'dautsut.

\* \* \*

Ez da berez —gertakizun ori—, garrantzi aundiko gauza. Bai ordea, eta izan daitekean aundienetakoa gaiñera, berekin ekarri eikezan ondorioengaitik, Jon Ajuriaagerra'k begiak garaiz iriki ez ba'eustazan.

Urteaz ez naz ziur gogoratzen. 1959'an eta 1960'ean, ogeturik egon nintzan ni aski elbarriturik; eta 1958'an

Ipar-Ameriketari; Yorke Berri'an. Leenagokoa da beraz, 1957 edo 1956'koa seguruaski, nere gertaritxo au.

Ni, orduan, Gazteiz'ko "Obra Diocesana de **izen-eban erakundearen zuzendari nintzan**. (Gogoan dot nola, urte batzuk leenago, Gazteiz'ko Gotzai zan Bueno Monreal'i, gazteleraizko izen ozen orren alboan "Lanbide-Eziketarako Elizbarruti-Ekintza" ederto egongo litzakela, nola bein parrez esan neutsan, eta arek "ez zaitez eskuak sutan sartzen asi" nola erantzun eustan.)

Ez ziran asko, urte aietan, gure ikasleak; 300-edo neska ta mutil, urian genduzan bi ikastetxeetan; eta 35 edo 40, sortu-berria neban Nekazaritzarako Ikastetxean. 15'tetik 23'ra urteko neska-mutillak danak.

Gaur, askoz ugariago dira; 3.400, une onetan. Orre-gaitik diot, ondorio izugarriak izan eikezala nik Ajuriaagerra'ri aurkeztu nion arazoak, arek orduan ondo aolkatu ez banindu.

Garai artan, ETA ez zan oriandik "ETA"; "EKIN" baizik. Ta, egun batez, Araba'ko Euzko-Gaztedi'ren buruzagi zan Andoni Perez-Cuadrado etorri yatan iru gizon gazterekin. Negua zala oroitzen naz; baiñan gizaseme aiek nor ziran, ez. Ezta Andoni ere, itzegin dot ba berarekin. Bat, Madariaga zala uste dau. Besteak, Valle eta i,Txillardegi?

Agoko goxoz egin eusten iruek berba. Gure neska ta mutillen artean sartu gura eben, Araba'n ere "Ekin"en taldeak sortzeko. Oartu nintzan uriko bi ikastetxeak bezain guragarri yakela nekazaritzakoa.

Erantzuna zugarri eman nai nebala-ta, amabost eguneko epea eskatu neutsen. Gero, Andoni ta ni bakarrik gelditu gintzazanean, neure erantzuna baiezkoa izango zala esan neutsan, iru gazte aiek —eta beren ekintza—, zalantzarik gabe atsegiñak epaitzen nebazalako. Eta baietz, erantzun eustan Andonik ere: Gizon zintzoak eta aber-tzale jatorrak zirala irurak. Orrelakoak izan ez balira, berak ez ebazala sekulan neuregana ekarriko.

Geroxeago ordea, ikastetxetik irten nintzanean, Valdes Goiketxea'tar Iñaki adiskide miñari agertu neutsan iru bilbotar aien etorrera.

Don Iñazio Valdes, apaiz lekeitiarra, musikalaria ospe-tsua ania —eta Goiketxea, beste musikalaria ospe-

tsuago baten illoba—, Elizbarrutiko katekesiaren Zuzendaria..... ez nolanaiko gizon bikaiña. Nik ez neban beñere neure eginkizunetan ezertxo ere egiten aurretik arekin itzezin gabe. Ezta arek ere, bereetan, leenago nerekin arazo bakoitza aztertu barik. Egunero lkartzen gintzazan ortarako, eta sarritan —ia astero—, alkarrekin bazkaldu "Marina" zeritzan jatetxean.

—Jon Ajuriaagerra emen dogu gaur; Arantzabal'darren olan. Ez yatzu txarto etorriko, iru bilbotar oiei erantzun bat eman aurretik, Jon'ekin berbaldi bat egieta —aolku-eman zidan neure lagun zintzo onek.

Adiskide aundi-aundia zuan On Iñazio'k• Ajuriaagera; eta ordurako zerbait esan ei eutsan arek "Ekin"eri buruz.

"Arantzabal" olaren gela batean artu ginduzan Jon Ajuriaagerra'k Isiltasun osoan, ezertxo ere esateke entzun eustan neure berbaketa luzea.

Gero, itzegiten bera asi zanean, ez dodaz gogoan jalki ebazan itzak, baiñan bai agertu eustazan gogapenak:

—Zu ez zara neskatil eta mutil oien aita. Eta ez eizu aztu besteren umeekin jokatzea ez yakula iñorri zillegi.

—"Ekin"go jendea, jende atsegiña eta abertzale zintzoa data iduritu yatzu, eta badozu zure aburua izateko eskubidea. Neuri ez yat jende ori zuri bezain atsegiña iduritzen, eta badot neuk ere nere aburua izateko eskubide berdiña. Leialki esango dautsut: Jende orrek ez dau gurekin ezer jakin nai. Ez dau gure aolkurik entzun nai. Guk ez dogula ezertarako balio, diño, eta, ezta

gure Eusko-Gaztediak ere. Bide txarretik ekin dabe eta jende okerrarekin asi dira berbetan. Txarto amaitu bearrak dira pentsaera eta jokaera aldatzen ez ba'dabe. Eta gaitz aundia egingo dautse Euzkadi gure Aberriari ere.

Ori dozu neure iritzia. Orain zeuk artu bear dozu egokiena iduritzen yatzun erabakia. Ori, zeure erantzukizuna da; ez neurea.

Itz oiek danak, neuri adi-adi begira esan eustazan, goibel, axarre-antzean, ezpaiñak izan ezik bere aurpegi-ko larruaren punttu bat ere mugitu gabe.

Auxe gizon zitala!, pentsatu neban nik neure barruan.

Eskerrak emon neutsazan; eta baita, ziñez, bere aolkua jarraituko nebala agindu ere.

Buruz baiezko keiñutxua bi-iru bider egiñaz erantzun eustan, eta polliki-polliki irripartxo legun bat loratu yakon ezpaiñetan. Ordubetez jarraitu genduan izketan. Alai egon zan. Ez eban parrik egin, baiñan jolasaldi guzian ez yakon irripar arin, goxo, atsegin ura ezpaiñetatik galdu.

Beste gizon bat zan orduan Jon Ajuriaagerra.

Bein bakarrik egon nintzan ostera berarekin. On Iñazio Valdes neban bigarren ontan ere lagun. Baiñan 1958'an il zan On Iñazio-ta, ez neban geiago Jon Ajuriaagerra'rik ber-ikusi. Eman eustan aolku zurgurragaitik zor dautsodan eskerra, ordea, ez dot sekulan aztuko.

LATIEGI'TAR BIXENTE

### IPUIN-SARIKETA

**EUSKERAZALEAK** ALKARTEA'k ezarritako **maikoak alkartu** dira **abenduaren 18'an** euren epaia emoteko eta maiko guztien eritxiak **batu-ondoren, auxe** izan da artu **daben erabagia**:

1.º SARIA: 40.000 pezeta, **IPUIN-ESKE** lanari. Idazlea ONAINDIA'tar Santi.

2n. SARIA: 30.000 pezeta, **NIRE GANBARAN AURKITUTAKOA** lanari. Idazlea: PENADES'tar Josu.

3n. SARIA: 20.000 pezeta, **LUKAS'EN ERAKUTSI ONA** lanari. Idazlea: ERKIAGA'tar Eusebio.

4n. SARIA: 10.000 pezeta, **GAUR TRINKATUA, BIAR IRAULTZAILLE** lanari. Idazlea: LEJARTZA'tar Sebastian.

ZORIONAK!  
**EUSKERAZALEAK**

## ZORIONEKO EUTANASIA

Udazkeneko orbela lez dabil itz ori komunikabide guztietan. EUTANASIA gora eta EUTANASIA bera.

Eutanasia edo Eriotz-goza, Eriotz-ona, Miñigabeko-eriotza, Erruki-eriotza, Maitasun-eriotza... Milla izen badi-tu mintzaira oroetan.

\* \* \*

Baiña, zer da eta zer ez da zorioneko Eutanasia ori? Eutanasia esan dogu, edo Eriotz-ona... Gure arteko berba zaarra dogu Eriotz-ona izena: Jainkoaren maitasunean eta bere laguntzan izandako eriotza izan oi da Eriotz-ona.

"Ona" itzaren esanaia, ordea, zabaldu egin da. Gaur egun zera esan nai dau, gizakien maillan eta gizakien erara ilteko eskubidea eta ez etxetik kanpora botatako txakurraren maillan...

Trankil iltea, lagunartean iltea, maitasunez inguraturik iltea... Ez bakarrik oraingo tresnekin luzatzen dan eriotza penagarritik iges egitea; baita be eriotz-leku penagarriak diran gaixo-etxe aundietatik aide egiteko eskubidea...

\* \* \*

Ospitalak eriotz-leku, matadero baltz biurtu jakuz. Errugabeko matadero otza. Matadero oneitatik libra gagi-zuz, Jauna!

Egungo arazo au korapillo latza biurtu da, "Tanatologia" deritzan zientzia barria sortu-araziz...

\* \* \*

Eutanasia izenak gaixoarekin dau zer-ikusia, maitasun eta errukiaren ikuspegitik. Baiña ez edozelako gaxotasunarekin, itxaropenik gabeko gaxotasunarekin baiño... eta era orretan dagozan gizakumeekin erabilten diran bideak begien aurrean eukita.

### EZIÑEZKO EUTANASIA

Gure Sinismenak onartzen ez dauan eutanasia auxe izango litzake: miñetan dagoalako, gaixoa iltea, ekintza baten bidez. Esate baterako morfina geiegi emonda, eriotza dakarren iniezioa sartuz; zezenari "puntilla" emoten jakon antzera. Au izango litzake gaixoa zuzenean iltea.

Zearretako bidea, barriz auxe: bear diran eta normalak diran sendabideak ukatzea gaixoari. Esate baterako: janik edo edanik ez emotea, suerorik ez ipintzea, odol-trafusioak edo dialisisak ez egitea, insularik ez emotea eta abar. Emen ere gaixoa iltea izango litzake gure barruko asmoa, eta ori zuzen-zuzenean; naiz-eta

bideak zearkakoak izan. Oneik ezaren bideak dituzu, ezezkoak, baiña, gure gogoz baiezkoak dira, ezezko bide orreitatik eriotzaren billa bai gabiltza.

\* \* \*

Kristau ikuspegia garbi agertzen da arazo onetan eta zalantza barik:

"Iñork ez dau eskubiderik beste gizaki errugabekoari bizia kentzeko (naiz aur-galdu, naiz ume, naiz adiñeko, naiz zaar, naiz gaixo sendatu-eziña, naiz agonian dagoana). Iñork ezin leike ori bere buruarentzat eskatu, ezta beste iñorentzat ere... Ezta eragin edo egiten laga aginpidea daukonak..." (Acta Apostolicae Sedis-72 (1980) 542-552.

\* \* \*

J. Pablok be bardin-bardin irakasten dau (85-X-21'an) onelan esanez:

"Eutanasia krimen utsa da eta orretan laguntzea edo norberak bere buruarentzat eskatzea, baimena emanez, eziña da, norbere erantzunkizunaren aldetik..."

### ALDANEZKO EUTANASIA

Gaixoaren neke-miñak arintzea, naiz-eta onelan biziaren luzaera murriztuko dala ikusi, ori bai okerrik gabeko eutanasia izango da.

Eriotza era egokiz eroan aal izateko, gaixoak laguntza bear dau.

Laguntza orrean artekoa da, neke-miñak arintzeko diran sendagaiak erabiltea... Orixe da gizakumeari gizakieran ilten laguntzea. Au be sendagille eta jakintsuen eginbearra da eta moral aldetik eragozpenik gabea. Miñak arintzeko lo-bedarrak eta abar erabilteak biziaren luzaera moztu leike; baiña, baldintza ori jaso bearrezkoa da, gaixoari bere larritasunean laguntzeko...

\* \* \*

Beraz, ori egitea ez da benetako eutanasia eta izen barria ere asmatu jako eta auxe da: Ortotanasia. Kristauari pakean ilten laguntzea da ortotanasia. Izena aldatu bear zan, guztiak Eutanasiaren izenpean orain arte begiratu izan badira be. Miñak ezin eroanak diranean, morfina emotea edo ezertako ez diran tubo ugariak gorputzeko zuloetatik kentzea (ezertako ez diranean penaz bizia apur bat luzatzeko baino), orreik ez dira Juan Pablo bigarrenak "krimen" eta erailtza bat lez jotzen dauzanak, konzientziz libre bait da oneik egitea...

Eutanasia barri onek zera eskatzen dau, normalean edozein gaixori emoten jakozan laguntzekin il dedilla

kristaua bere orduan eta bere garaian, antigualeko eran, alperrik penatzen euki barik orain erabiltzen diran medio eta bide izugarriekin...

\* \* \*

Auxe da, izan be, Elizaren benetako irakatsia, bai Pio XII'arena eta baita Fede-dotriñako Kongregazioarena be (1980).

Juan Pablo Bigarrenak erakutsi orreik argitu egin ebazan bost urte beranduago, onelan esanez:

"Bakoitxak badau bere burua sendatzeko eta senda erazteko eskubidea. Baiña, zillegi da, baita be, sendakuntzak berekin dituan bide normalak erabiltea eta orreikaz konforme izatea, bide gaitz eta arriskutsuak artu

barik. Bide eta medio oneik iztea ez da norbere burua erailteza. Orrek auxe esan nai dau: gure izakiaren era arrunta eta normala onartzea, bide zaillegiak eta frutuekin konparaziorik ez dabenak (medio aundiak eta frutu eskasa) ez artzea senitartekoeri eta gizarteari karga geiegi ez leporatzeagaitik, edo artutakoak lagatzea, zillegi data eta libre... baiña, medio eta bide arrunta eta normaletatik ibilliaz, oneik baztatu barik..."

\* \* \*

Arazo au obeto aztertu nai dauenak begiratu begi Gazteizko Seminarioko LUMEN aldizkaria (Vol. XXXVI. Mayo-agosto 1987. Nos. 3-4. Pigs. 265-290).

ANES ARRINDA

## GARI-ALEA

Eskean nenbillen  
kalerik-kale  
errixka nerean...

Bat-batean,  
zure zalgurdia  
urrez eiotia  
dizdiraz aurrez-aurre  
bide-muturrean.

Errege guztien  
Erregea  
badator niregana,  
neurri gabeko zoriona  
nerea;  
amaitu zait  
aurrerantzeko nekea,  
eskale trebea.

Badator.  
Ene poza!  
Zalgurditik jetxi da,  
aurrez-aurre daukat.

Nere zoriona...  
Aseko dizkit barrengo goseak,  
barrengo nereak,  
sakelean,  
biotzean,  
une batean,  
aundia bait da  
nere bearkizunaren zuloa,  
luzea,  
illuna,  
argi gabeko osiña...

Beregana eskua luzatzean  
bere begiak  
neregana maitekor eskean...  
Zorabioa sortu zait barnean,  
irauli zait biotza.  
Iriki dut sakela  
eta, nere pobrezian,  
eman dizut alea,  
gari-aletxo bakarra  
ez bait duzu besterik bear.

Zurrunbilloa,  
aize-bolara,  
zaldien irrintzia...  
Gurdia  
badoa bere bidean aurrera.  
Egunsentiaren aize epela  
nere biotz-gunearan  
gorde-lekuan...  
Etxera bildu naizenean  
sakela ustu dut mai-gaiñean;  
gari-aleen artean  
urrezko dizdira  
ale bakar batean...

Goien-goieneko  
eskalea,  
zergaitik ez ote dizut eman  
gari-alearen ordez  
biotza nerea...!

(R. TAGORE) ANES

## SOLLUBEKO EZKURBI

Soillube'tik ikuskizuna: itxaso zabala alde batetik, Gernikako ibaia, Mungia eta txori-erria, Udalaitez eta Anboto, Gorbeia... eta oiñ-azpian, Bermeo.

Gernikan erne nintzan, muiño batean, Santimamiñetik ez aini urrin. Areitz eder bat egin nintzan eta bizkaitarrek neure babesean, neure itzalpean, egiten zituen euren batzarrak...

Bi karlistada ezagutu dodaz, joan dan mendean eta Gernika kiskaltzen be bai mende onetako guda madarikatuan... Iparragirrek abestu eban lenengoz, eta Madrid'en, bere "Gernikako Arbola" bigarren karlistadaren ondoren...

\* \* \*

Joandan mendeko bi gerrak Euskalerra galduta itzi eben txirokasunean eta tristuran. Mendian lez, itsasoan be... Kaietan bateltxoak, trañeruak eta atunetako txalopandiak... 1912,ko udarako galerna itzalak ekarri eban eriotza eta negarra... Sota'ren "Goizeko-Izarra" k jaso ebazan gizonak uinetatik; baiña, famili askok ez eben orrelako suerterik izan, semeak eta gurasoak alkarrekin joan ziran ondora...

Bilbo aldera begiratu ezker, barriz, burni-meatzetara erdaldunak eldu dira baztar guztiak zapaltzen. Euskadi galduta. Ez da arritzeko Sabiñek oiú egiten ba dau:

"Ii naiago det/ikusi baiño/aberriaren amaia...  
Zure basotik atzo igoten zan  
eskari ona zerura  
gaur erdaldunak sartuta  
aixea be birauz bete da.  
Nolan ondiño il ez zara?"

\* \* \*

Tostartekoak beti makal eta txiro... Baserritarra nekez... Lantegiak erbestekoez beteak... Baporak sortu dira eta txalupa-andiak galdu... Piñu baltzak jan ditu gaztain eta areitz-basoak... Galdu gara betirako...?

Burua jasotzen ekin dogu eta bere onera ekarri baiño lenago, Franco'ren zapalketa eta Gernikaren triskantza.

Euskadik, ordea, dirau eta Gernikako areitzak ere bai:

"Areitz bat Bizkaian da  
zar, sendo, zindo bera ta bere  
Lagia lakua..."

Nere aizpa Gernikan, baiña neu Soillube gaiñean sorturiko areitzaren ondorena naiz. Erori nintzan lurre-ra eta bertan sortu eta azi areitz sendo-ederra egin arte...

Bermiotik etorri ziran gizonak aizkoraren ago anker-ra neure gerrian ipiñiz eta ebagi ninduen, abola luze-lerdena nintzan au. Zerurafiñokoa nintzan.

Bermioko kaian egiten ziran iru mastako ontzien artean ni, masta-erdiko ipiñi ninduen laukiko iru oial aundieri eusteko... Irureun toneladako ontzia, baleetarako egiña: bost txalupa barruan. Areitatik lau baleari segitzeko. Bosgarrena gordeta, bateren bat ondoratuko balitz errespatorako...

Balea gure kaietatik urrindu zan eta Terranobako uretara joan bear, Labrador partera, bale-billa. Lau txalupa arrantzarako eta lau patro: kapitana, pillotua, maixua eta kontramaixua, bakoitza berean...

Masta-muturreko mutillak, balea!, deitzean, kapitana bale-ontzia aruntz zuzentzen dau, bi milletara eldu arte eta orduan txalupak uretara botau, eta, aizea popatik ba'da, oialez eta bestela, arraunez balearengana jo.

Gertuen dagoan txalupak botaten dautso lenengo arpoia eta bigarrena al ba'da. Geroago beste arpoi bat sartu ezker, oba da balea urpera joaten lagatzea... Urtetan dauanian, sangraderekin zauritu, "odol aundietan" oba. "Odol txikiak" diranean, nekez ilten da balea...

Azken arnasa emoten dauanean, orduan atoian edo erremulkan ontzira gerturatu, indioekin perrak diranean. Pake garaian, berriz, legorrera eroan bertan eraikitako txabolara, an zatituteko eta, txingarrak egiñez, koipeak atara eta barriketan imiñi... bodega guztiak bete artean. A zer poza udazkeneko aize epelakin etxeruntz abiatzen geranean...!

\* \* \*

Labradoreko eskimalek euskaldunekin zearo asarratu dira joan dan udazkenean, bale-ontzi bateko mutillak buruzagiari emaztea arrapatu eutsoelako... Aurten udabarrian agertu garanean, sekulako eriotzak egin ditue txaboletako gizonen artean eta urtutze-lanak barruan egin bear izan ditugu, ontzia erretzeko arrisku aundiarekin... Labradoreko parte onetan ez dogu aurrerantz pakerik izango. Gorroto bizian dagoz gure aurka. Ez jake arrazoirik palta.

\* \* \*



Negua bere surra agertzen asi danean, etxerantz jo dogu, oial guztiak zabalik. Illebeteko atsedena daukagu bidean, ames egiteko denbora luzea... Eskimalaz ez diran indioekin ondo alkartzen gara eta agur egin dautsegu datorren udaberrira arte.

—Euskaldunak, etorri barriro guregana. Ekarri sagardo, ogia, burnizko aizkorak eta lanabesak gure kastornarruekin trukatzeko...

Zenbait neskaitilen begietatik malxo epelak erortzen ikusi dodazen. Gorputzaren azal-koloreak ez dautso maitasunari esirik ipinten; baiña, gure mutillak euren biotzak Euskalerrira begira dabez... An urrutian Bermioko kaleak ikusten ditue. Kale zoragarriak. Zein illebate luzea Terranobatik Bermiora bitartekoa...!

Zer istilluak eta zer algarak ontzi-muturra, Matxi-txakotik aurrera, abiatzen danean kaira sartzeko... Zazpi illebate zure kalerik ikusi barik... Neuk be antxe ikusten dot Soillubeko tontorreko neure sor-lekua, andik atera ninduen bale-ontzi onetako erdiko masta izateko...

Zer zoriona etorri diranentzat eta berton zai-zai eta arduraz beterik, egon diranentzat. Arriskuak, nekeak eta izardiak koipe biurtu diraz eta, koipe oneri esker, orain negua etxeko epeletan igaroko dogu, udaberririk lur osoa berpiztu arte...

Neguan, oraindiño be, baleak agertzen dira gure kostaldean: banan-banan, ama bere kumarekin ala emea arrarekin... Guk onek Terranoban sardatan ikusi doguz eta orregaitik "Sardako Balea" izena imiñi deutsogu... Lana egin dogu sendo eta neguko baleak ez gaitu mogituko; orreik berton dagozenentzako dira.

Bertoko bale-arrantza estropada bat izaten da. Balea agertzen danean, txalupa danak parte artzen dabe; baita

alboetako kaietako ontziak be... Zenbat burruka sortzen dan kaien artean arrantza onetan... Zergaitik? Lenego arpoiak balea bere portura eroaten daualako. Eta, bale batek aberastasun aundiak ekarten ditu errira... Alegindu egin bear lenego arpoia sartzen...!

\* \* \*

Eldu da barriro udabarria eta barriro oial zuriak masteetan zintzilik...

"Boga, boga, mariñela  
joan bear degu urrutira...  
bai Indietara."

San Lorenzo ibaiaren kolkoan baleak sardan; nai dan beste koipe dogu barriketan sarturik. Bodegan oraindik leku apurtxo bat badago libre eta axe bete nai... Antzarrak iparretik egoalderuntz abiatu ziran joan dan astein, baiña kapitanak beste dozena bat barrika gura ditu guztien partillak obetzeko... Bat-batean egoaldia aldatu da. Ifarraldeko aizeak jotzen dau indartsu eta oialak arriau bear arin. Aizearekin batera otzaren mada-rikazioa. Diru-goseak galduko gaitu... Itsasoa izozten asi da. Izotzak arrapatu gaitu eta ontzia ondoratu da. Agur koipeak, agur diruak, agur ametsak, agur Bermio...

"Ez det, nik ikusiko  
zure kai ederra..."

\* \* \*

Soillubeko areitz ederra Labradoreko ur izoztuetan gelditu da betirako, etorkizunean andik iñork ataritzen ez ba dau.

ARRINDA'TAR ANES

**ZER**

**ALDIZKARIA**

- ILLEROKOA (MENSUAL)
- BIZKAIERAZ IDATZIA (EN BIZKAINO)
- ERRI-JAKINTZAREN GAIK (MATERIAS POPULARES)
- IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK (LECTURA FACIL)
- ARAZO SAKONAK AZTERTUTA (ANALISIS DE TEMAS)

**ARPIDETU ZAITE!**

**ZER**  
EUSKERAZALEAK

Colon de Larreatgui, 14-2.º —BILBAO-1

## EUSEBIO ERKIAGA, OLERKARI

Ibilte latz dozu bizia, kurubilka eriotzara garoazana. Edergarri lez untzori-ditzira dau biran. Bizi ori edertuz ta oztopotuz literatura daukagu tarteko; erti-lana, nekea, nunbait, bear-izanetik erneten danean. Idazlea, bear-izanak bultzata, barruan kiribiltzen jatzu bear-izana billatzen dau, idaztera daroana, ur-gaiñ doan orbelari ur-tiraiñak sakatzen dautson legez.

Rilke'ren aburuz, bear-izan orrek norbaiten biotzean sustraiak bota ba'ditu, idazie bat daukagu or, eta doakabe litzateke idaztea iñok galazoko ba'leuskio: eriotzarako bidean legoke. Auxe dozu E. Erkiaga, euskal idazle bizkorra.

### BIZITZ-ORRIAK

Lekeitio'n jaio zan Eusebio Erkiaga 1912-9-4'an. Gura-soak, euskaldun utsak. An bizi izan zan 24 urterarte. Gerratean, 1938 gn.urteko udabarrian balaz zauritua, Castellon aldean. Ezkondua da, lau seme-alaba ditu, ta Bilbon bizi da iragan 58 urtean. Bizkai Bankuko langille, gaur zar-saritua. Euskaltzain aulkiduna, 1965'tik.

Gauzak, eta bizitz-urratsak batez be, nundik nora ibilliak izan diran, noberak jakin oi ditu ondoen. Auzi oni buruz, ona nik eskatuta, urteak dirala -1969-8-12'an— Erkiaga'k berak idatzi eustana:

*"Idatzi.* Iru nobela euskeraz, argitaratuak, irurak sari-tuak: "Arranegi" eta "Batetik bestera", bizkaieraz, ta "Araibar zalduna", giputz. Eta hainbat olerki aldizkarietan, heurotarik asko sarituak, 1930 gnetik oraiñarte. Baita itzaldi batzuek ere argitara eman izan ditu, antzertilan banakak eta izlauezko artikulu anitz. Argitaratzeke, nobela bat (gaur argitaratua) eta beste baten euskal-itzulpena; teatru-lan batzuek eta olerki asko.

*"Noiztik eta zergaitik olerkigintzan?* Amazortzi urte zituala asi zan euskeraz idazten, aldizkarietan. Abestia maite izan du betiere, ta gero, euskera ta musika ere bai. Horregatik, lehenbiziko lanak, geienbat, izneurtuz egin zituan. Gerogarrenean, A. Irigarai-ren eraginez, prosari emana ikusi izan dugu.

*"Olerkia zer ote den?* Iñola ere ez filosofi otza. Hor-tatik erauzia ta banatua izan da estetika. Olerkaria, aztia ta igazlea ta sorgina dala esan obi dute. Filosofu-ukitua ere, izango du noski, Elelderrean, prosan batez ere,

doiñutasuna ongarri balin bada, are geiago poemetan, Olerkia ez da itzaldia ta azalpen otza, beste zer bait baizik.

*"Euskal-olertiaren egoera, orain.* Sinismen, oitura, lirika, epika ta gizarte-gaietazko olerkiak ditugu. Gizona-ren olerkiak, ordea, iñoiz baiño ugariago egiten dituzte gure idazie gazteak. Bertso asko ta neurgabeak erabilli izan dituzte erruz arlo hontan lehenxeago, lirikatik eta musikatik aldera. Orain, ordea, olerkari sazial hoiek diskazale bilakatu dira, ta musika-neurriak eta lirika-ukituak berriro kutsatu dituela esango nuke. Zera, asmoak aldatu gabe, eta latzetaz igesi, estetikarantz eta musikarantz makurtuago ari dirala.

"Gizarte kantu berri hoietan, aberkoiak ere sartu behar, eta sail biotan, poeta azkarrak ditugu, zorionez. Ta poesia eledeerra danez, izkera jator, argi ta berezia-goia duten aldetik, bai euskerari berari dagokionez, gure oiñordekoen ongarri ta ikasgarri."

Auxe dozu Erkiaga'k idatzia urte batzuk dirala, ta gaur-egun be, nik uste —ez bait da eritxiz arin aldatze-koa—, orretan dagoala. Orduko olerkari mordotxoa ixillik dago orain, baiña beste asko leenari eskiñita dagoz.

Erkiaga'k berak, poesi-liburu berezirik emon ez dauskun arren, naiko poesi argitaratu dau or-emengo aldizkarietan. Nik sarri idatzi dot bera dogula Bizkaian euskal olerkaririk onena, eta onen ondoren Balendin Aurre-Aprai, besteai ezer kendu barik. Euskalerrriak pozik artuko leuke E. Erkiaga'ren olerki bilduma mar-dul bat.

### OLERKARI

Beronek diñoskunez, lirikaz ta musikaz zaletua, beti makurtu izan da Musa maitagarrien aurrean, euroi intzen-tsu biguna errerik. Amazortzi urte ebazanetik gaurgiño orrelaxe.

Nik 1954'an, olerki bilduma "Milla Euskal Olerki Eder" osotzean, Erkiaga'ren 10 poesi aukeratu nitun, ordurako landuta eukazan onenakin, nik uste. Arrezke-ro 34 urteotan asko koplaturu dogu, beti obetuz joanik. Oneik dira an datozen amarrak: "Errota-zuri", "Txin-tak", "Amesak", "Azkue-ren heriotzan", "Andre Mari", "Amaren giro", "Maitale bi", "Arbasoen herri", "Alaba galdua", "Zarama-zaleak".

Aldizkari askotan idatzi ditu bere lanak, baiña batez be "Euzko-Gogoá", "Gernika", "Oleri", "Egan", "Karmel"... Ona orreitatik iru, "Urrunetara", "Bethi gose" eta "Arbasoen herri".

Urrunera doa olerkaria, osabak eskiñi dautson oial-ontzian. Zertan ete? Urruneko ugarteetan "milla altxor dagoz utzita", baso illun, arzulo ta kutxa baltzetan. Danak batuko ditu ta, ixil-ixilka, bere oial zurizko ontzian sarturik, ekarriko ditu "altxor zaharrak lillura-ametsez josita". Azken estrofak onela:

Bedar-kolorez  
ontzi barria  
osabeak deust ezkeiñi,  
tantai goretan  
oial txuriak  
deutsadaz gaur nik ipiñi.

Bigarreanean gose da olerkaria, Jaungoiko gose. Leen intziriz eguna. Orobat poeta, igesi egiten idurimenak edoien artera, zorabio betean. Onela dau abesten:

Eguna aldaparen gailurreratzean  
lanari nagoko, zut, iende artean;  
Iguzkik galdurra orduan harroen,  
ta ni, sogiteke, arazoan barnen.

Zerumin bizi bat, Jaungoiko gosea,  
gizonak barnean dadukan lezea;  
alperrik bilhatu laket eta atsegin,  
behiamin horren hasetzea, ezin.

Ortziko zelhaia izarren iostean  
orduan ez iraun sinis gogorrean;  
eskuak bildurik, belhaunak lurrean,  
idortu begiak esker-negarrean.

Begiok idortuz esker-nigarretan  
zeruko zituak nireztat aletan;  
egunez ni sorgor bizitz zidorretan,  
ta Zu, Iaun, gauean bihotz-laphurretan...

Eta irugarren "Arbasoen herri", Erkiaga'k bikainki abestua:

Itsaso, arkaitz, ondar, zero azkengabe,  
mendi, ugalde, baso, uri ta basetxe,  
egunero nituan ene begiz aurre;  
Arbasoen herria nigan gain ta barne.

Ta batez ere, ene! zorion handia,  
Arbasoen mintzoa nuan edaria,  
euskeraz asetua ene belarria,  
euskeraren doiñuaz inguru guztia.

Geroz... bildur laiñoa dut nik bihotzean;  
urteen zimur-antza ote dut enegan?  
Edota inguruko izaki oietan  
aldakuntza larria al dut bat-batean?

Uts bat sumatzen dau olerkariak. Zeren utsa? A, bai! Aldiak egin dau lan doillorra: "Euskalduneri ostu mintzo bereizia".

Auxe dozu Erkiaga olerkaria, sakon, goi-zale, zentzun zabaleko.

AITA ONAINDIA

## "ZER" ALDIZKARIA-DIRUZAINNTZA

### OARRA

Ez dira gitxi gure ZER **onen igazko** ordain-saria **emon** ez dabenak, **Eskaritzu bat egiten dautzuegu: Ordaintzeko erarik errezena txeke bat bialtzea dozue. Igazkoa ordaintzekotan 800 pezeta eta aurtengoa ordaindu nai ba'dozue, beste 1.000 pezeta.**

Diru-aldetik **naiko estu gabiltz**, arren **eskatzen dautzuegu ba:** Artu **egizue kontu idegiko txeketegia** eta bialdu **dirutza orregaz** EUSKERAZALEAK **ALKARTEA**'ri. Sartu txeketa karta-azal baten eta bialdu **zuzenbide onetara:**

**EUSKERAZALEAK**  
**Colon de Larreategi, 14, 2.<sup>a</sup>**  
**48001 BILBAO**

**ESKERRIK ASKO!!!**

## BALENTIN BERRIO-OTXOA (IV) GOIRIA

### APAIZ

1848'gko. urrillan zan. Elorrion egoan Balentin oporetan. Filosofiko irugarren urtea eginda eukan. Bere gurasoak be apaiz eginda ikusi gura eben. Arotzeriak gitxi emoten eban, alan be alak eginda Isidro ta Monika laguntzeko prest egozan.

Onetan baiña Felipa Elbira gexotu egin zan eta Balentin etxean geratzea erabagi eben. Bai tamala ikasle gaztearentzat. Burua galdu barik Jaungoiko ta Ama Birjiñagan ipiñi eban bere uste osoa.

\* \* \*

Noz arte egon zan etxean bere aitari arotzerian laguntzen? 30 illebeta. Luzeak benetan beretzat.

Bere lagunak Seminaria ioan ziranean itun geratu zan errian. Auxe diño Iñazio Borda bere adiskide kutunak. "Logroñora biurto nintzan eta Seminarioko Nagusiak Balentin barik ikusi ninduanean bere galdera egin eustan eta zer gertatzen zan esan neutsanean atsekabe aundia artu eban.

Beste irakasle guztiak bildu ebazan bereala ta Balentin "Arima-Zuzendari" ipintea erabagi eben neure osabari idatzi nengiola agindurik Balentin lenbailen Logroñora ioan zeitean.

1848'gko. udaldia igaro zan; bardin urrengo biak eta iñork ez eban Balentiñen ardurarik artzen; iñork ez eutsan eskua luzatzen 1.165 errial emoteko. Kalahorrako Obispo Jaunari be idatzi eutsan "Beka-erdu bat eskatzen baiña ez eban lortu.

\* \* \*

Balentin ordurako eliz-gizon eginda egoan, 1846'gko. bagillaren 14'n tonsura artu eban-da. Onek eliz-aginpi-deren bat artzeko eskubidea emotsan.

Elosuan egongo zan laster bat. Biotza zabaldu iakon. Gurasoen baimenaz Logroñora doa; arrera ona egiten dautsoetan lengo irakasleak.

*Artezkiunak* ondo be ondo egin ebazan baiña ezer ez eban lortu. Beste batek kendu noski? Ez aurrerantzean be lengoak, Santiago Larruskainek jarraitu eban-da.

Ezer lortu ez-da Elorrion jarraitu eban bere aitari laguntzen. 1849'gko. azillaren 17'n Beka barri bat eskatzen dautso Seminarioko Zuzendariak Balentinen aide. Ez eban lortu.

1849'gko. abenduaren 30'n idazki bat zuzentzen dautso Balentinek berak Elorriotik Garro Jaunari.

Salinas-Eskoriatzan abade-toki bat dagoala diñotso. Erregen-iaiak igarota Logroñora ioateko asmoa daukola be ba-diñotso Seminarioko klaseak entzuteko gogoz.

Logroñon dago 1850'gko. aprillaren 24'n eta Elorrion agertzen da barrero urte atako bagillaren 20 baiño lenago. Erri onetan igaro eban uda osoa aitari laguntzen.

\* \* \*

Seminarioko Zuzendariak maite-maite eban Balentin; ondo ezagutzen eban bere barrua. Lagundu gura dautso.

Barrero be beka bat eskatzen dau 1850'gko. bagillaren 15'n. Oraingoan ez eban lortu. Alan be Logroñon agertzen da urte onetako azillan.

Zer egian Logroñon? Bitarteetan ikasi egiten eban lanagaz klaseak eta janaria ordainduta? Ezer ez dakigu; dana dala Elorrion agertzen da barrero abenduaren 9' n.

Aldi atako barri batzuk ba-daukaguz. Erri batzuetatik ibilli zan arotzerian: Zaldibar, Zornotza, Durango... Baiña bere ametsa apaiz izatea zan eta ateak itxita ikusten ebazan. 23 urte ebazan-da lenbailen erabagi bear zan egoera. Erabagi sendo bat artu eban: Erromara ioan oiñez, Aita Santuari biotza zabaldu ta apaiz izateko laguntza eskatu.

Onelako burutapenak aldean erabilzala, Benino *Marino* bere adiskide kutunaren idazkia artu eban. Urte onetan (1850) zabaldu zan Kalahorrako Seminarioa ta ango irakasle zan jaun au. Zuzendari Maxu bat bear

zala inotsan idazkian eta Obispo Jaunak ikasle gazte bat ipinteko asmoa ebalu. Auzi au Jaunaren eskuetan ipiñita idazki bat egin eutsan Goterkiko Ordezkaritari aginbidea bere alde emon egiala eskatuz. Pozarren artu eben bertako Zuzendari ta Irakasleak ain maite eben Berrio-Otxoaren eskari au. Beingo baten artu eban Obispo Jaunaren idazkia. Logroñoeko Seminarioko Zuzendari —Maxu autu eban.

Pozarren egoan Balentin. Olantxe saritu eban Jaunak bere iraupena. Elorrion egoan 1850'gko. abenduarren 31'n bere aitagaz lanean. Urrengo egunean Zuzendari-Maxu aututa egoan illean 100 errial irabasten ebazala.

\* \* \*

Bere Obispo Jaunak be eliz-barrutiko onena zala inoan.

"Jesus Sakramentaduaren aurrean otoitz egitera ioian danak arrituta geratzen ziran —diño beste batek.

Seminaristen ardura eukan arren ez eban agertzen ezertariko arrokeririk.

Guztien serbitzari lez agertzen zan beti. Gogo onez eta eroapen aundiaz bete eban beti zeregin gogor au.

"Gazteak —inoan berak— egunen batean Eleizaren oiñarriak diran landara bigunak dira."

Bere lana betetzen oso arduratsua zan —diño Fuljenzio Gondra jaunak— Santutasun-eredu zan danean. Danak maite-maite eben eta berak be maite-maite ebazan ikasleak. Egundo ez zan egongo alperkerian.

Bere menpekoak gaiztokeriren bat ba'egien otoitzak zigortzen ebazan. Logroñoeko Seminarioan apaiz eginda gero iru urtetan egin eban Ian Teolojia ikasi ta Seminaristak zaintzen; gaiñera konpensionarioa eta pulpitan be ekiten eutsan.

Ordu asko egiten ebazan konpensionarioan. "Santugaz konpisetara noa —inoen askok. Itzaldiak be— ba

egiazan. Biotzera berba egian beti. Santuari entzutera goazen. Santuak berba egingo dau gaur". Eta olako berbak eta esakerak eukezan sarri ainbatek. Epaiz santua zan bai Balentin Berrio-Otxoa. Au esan eban Leon XIII'grrrenak bere bizitzaren barri izan ebanean: "Martirioa sufridu ez pa'leu be, bere bizitza miragarria asko zan aldarren ipinteko".

\* \* \*

Seminarioan Zuzendari-Maxu zala jolas-aldi ta eres —iaiak jarten ebazan, batez be Gabon-Jaietan. Bardin antzerkiak ikasleak ordu pozgarriak euki egiezan. Berak ostera aureskua egian danen pozerako, flauta be jotzen eban eta mezea zuzendu abestiekaz.

Seminarioan Ian aundia ta gogorra eukan arren ez eukazan aztuta bere aitaxo ta amatxo. Biderako pastelak emon eutsazan bein bere amatxok Elorrion izan zan baten. Balentinek tren —bultzian aaztuta itxi ebazan. Andik laster amari egin eutsan idazkian ba— diño-tso: "Amatxo zuk emondako pastelak trenean geratu ziran, eta beraz ez nabazan jan. Goxoak izango ziran ba..."

Monikak beste batzuk bialdu eutsazan bere semetxo maiteak jan egiazan.

Artutakoan idazki bat egin eutsan Balentinek bere amatxori. Onela inoan idazkiak: "Amatxo: niri deustan amoriyuak burutik egin deutso? Ortik urten nebanian emon eustazen bizkotxuak birian galduta, merezi neban ez geyago bialtzia: orregaitik ikaratuta gelditu nintzan lengo egunian Esteban errotariyaren semiak sei bizkotxu ekarri eustazanian. Sei oneitatik bi nere lagun maite Merinori erregalau neutsazan; bat Erretore jaunari; beste bat Infante jaunari; bat beste Katedratiko bati eta beste bat gelditu neban neugaz. Eskerrik asko ama".

Olangoxea zan Balentin: biotz onekoa ta alai.



## EZ DA EUSKALDUNA...

Ulertu bai. Ulertu egiten dau, antza, *Unbe'ko Ama Birkiñeak*, baiña ez daki euskeraz.

Zeruko Ama maiteak gure berbetea ondo dakialakoan, beti egin izan dautsoguz, guk geuk, geure eguneroko otoitzak euskeraz, kantau bere beti euskeraz eta, leengo baten, jakin izan neban, *ikusleak* euskeraz egin izan utsola baiña erderaz erantzun utsala... Egundo olakorik! Entzuteko be!

Leengo baten, irratikuskiñari begira nengoala, *Unbe'ko Ama Birkiñearen* jaien bat ospatzen-edo elduta gizon eta emakume taldea agertu izan zan, lurralde atan, urrunetatik etorriak bere bai batzuk: Zaragoza'tik etorri zala esan eban, ba, batek.

An ebizan bideztiak bata ortosik uretan, beste batzuk otoizka, lilluratuta, eta abar, elizkoi antzeko ibillian, Ama Neskutzari euren kezkek azaltzen.

Olakoetan oi danez, izparkaririk bere ba-zan arein artean, batari ta besteari itaunak egiten: Batari nundik etorri izan zan, besteari Ama Birkiñear zer eskatzen eutson, aragokoari zenbat bidar an izan zan eta abar eta abar. Alango baten, Ama Birkiñearen *ikusleagaz*, beragaz, berbetan asi izan zan eta beste itaun batzun artean, urrengo auxe itaundu eutson: "Eta, zuk andrea, Ama Neskatzari zelan itz egin zeuntsan, euskeraz ala erderaz?". "Nik neuk euskeraz egin izan neutsan baiña, berak, Ama Birkiñeak, erderaz erantzun eustan", esan eutsan, bentasunez, izparkari itaunlariari.

Aren, *ikuslearen* itzak entzun izan nebazanean, barreak urten eustan eta auxe esan neban, gitxi gora-beera, neurekautan: "Kontxo! Berak, *ikusleak* edo danadala-koak euskeraz egin eta Ama Neskutsak erderaz erantzun, ezin izan daiteke egia andra orrek diñoana".

Zeozer entzunda ba-nengoan baiña eneutson gorasunik emoten *Unbe'ko Ama Birkiñearen agerpenari*, nik neuk, eta andra *ikusle* arek berak euskeraz egin eta Ama Neskatzak erderaz erantzun utsola entzun neutsonean, andra aren zentzunbakotasuna agertu izan ekidan.

Arek, emakume *ikusle* arek, ez eban ikusi izango ez Ama Birkiñarik, ez ezer. Ikuslea dala diñoan emakumea itsua ei-da eta ba'leiteke bere illuntasunean Zeruko Amaren irudimenen bat *ikusi* edo begitandu izatea...

Daitena dala, zigur nago, euskeraz egin izan ba'leutsa, Ama Birkiñeak euskeraz erantzuko eutsona.

Agerpenen bat izan dala nunbait erdi-entzun dagierako asten dira inguratzen, ikusgureak, Ama Neskatzak ukusgurakoak; egia ala guzurra izan daitekeanik bere etxake gogoratzen... Geuri bere agertu bear litxakigula pentsetan ibilli bearrik ez daukagu, ba.

Jainkoaren adiskidetasunean eta Zeruko Amagana-ko oneraspenaz bizi daitezanak beti ikusi darue Ama Neskutzaren aurpegi disdiratsua euren gogo-begiakaz. Onetan zigur nago, bai!

AURRE-APRAIZ'TAR BALENDIN'EK

## ILUNTASUNAREN GAUEAN

Iluntasunaren gauean,  
umearen negarrak.

Bakartasunean bakarrik,  
amak bertan beera itzita.

Iluntasunaren gauean,  
umearen garrasiak.

Amak, bere umearen lotsaz.  
Ori bai amakeria!

Iluntasunaren gauean,  
umearen azken arnasea.

Norberaren odola,  
norberaren burua ukatzea,  
gizadiaren aurka jokatzea.

Iluntasunaren gauean,  
euskaldun batzuen saldukeria...

Iluntasunaren gauean...  
Gau iluna, gau baltza.

I. MARTIARTU  
1987.eko Urrilaren 4an  
Frankfurt

## ZORNOTZA'N ANDREN ABESBATZA

Gure Jaunerri, Bizkaian, ba-dira ainbat erri abesbatza deukenak. Udabarria baiño lenago entzuten dogu pozez, neguaren azkenean, Begoña'ko Ama Birjiñaren oiñetara 32 erritxu, gitxienez, euren eres-zaletasuna agertzeko ta Jainkoaren Amari eskeintzera joaten dirala.

150 abots gizonezko lodiak, munduan zear entzuentzuak, abesbatz eder bat egiten dabe Algorta'n. Baiña orain arte beintzat, andrazkoen abotsaz bakarrik eraturiko abesbabatza, Zornotzan ezautzen dogu.

Zelan sortu dan?

Joan dan Urrilla'ren 15'ean Teresa deunaren eguneko jaian. Egun onetan, urtero, apari bat egiteko asmoz abesteko batuten dira. Aurten batu ziran, batez be, Mexiko'ko abestiak, Abanerak, ta geure Folklorekoak abesteko. Talde bakoitxak euren eraz ekiazan abestiak ebezan. Orduan, asmo bat sartu jakoen, Zornoza'ko Laguntaldeari eskatu itzi egiela astean asti-unetxu bat jarduerak edo ekiñaldiak egiteko.

Gonzalez'tar Maite'k-eres-zotzaz eguasten guztietan iruretatik aurrerantz ogeiren bat andra-laguneri ekiñaldietan ames eragiten dautse abestietan: "Mesias" Operakoa, "Nabuco" Verdi'rena... Oraingoz ez dira ogei baiño. Alan be, Maite Gonzalez'eri itaundu jakon:

—Ez daukazue gogorik talde au andiago egin daiten?

Ta berak erantzun eban:

—Talde au ez da itxiten; idegita geratuko da abestu gura daben gustientzat. Ez daukie eginbearrik guri esatea baiño.

Aurten batu ziran, batez be, mexikotar abestiak, abanerak ta geure Folklorekoak abesteko.

Taldeak euren eraz ekiezan abestiak abestu ebezan.

Orduan, asmo bat sortu jaken: Zornoza'ko laguntaldeari adierazo andrazkoen abots zuriakaz eratu bear zala abesbatz egokia.

Eta gauzak bare-aldiz, ixiltasunez asi bear diran ezker, lenengo egunean lau bakarrik, kitarra bategaz, olge-

tan balitzake lez, ikasteko eldu ziranean, asi eben arloa. Baiña gero, astiro-astiro, andra abestalde onek, bere-erea artu dau eta orain zerbait benazko da.

Euren(andren) guraria ekiñaldiak egiten eguasten guztietan jarraitzea da, Teresa deunaren jaian barriro abestuteko.

Euren erabagia da, andra talderako abestiak ondo gertu ezker, nozipein beintzat, beste eresi batzuk abestalde gizonezko ta andrazko nastuaz gertatzea.

Eta zer esan eban gizon abesbatzaren zuzendari dan Jose Maria Gonzalez andra taldearen asmoak jakinda? Bere ustez Aita Iruarizaga'ren abots nastu edo bitariko eresiren bat aurkeztatu ta abestu leikela Santa Zezilia musikarieren babeslearen egunean, emengo Santa Maria Parrokian. Alan da gustiz be, garai batzuetan lankidetasunean ekinarren, Koral Zornoza'ko Zuzendariak bere taldea ez zala aldatuko, bitariko abesbatza egiteko jakinerazo eban. "Ainbeste aldi eginda —geiagotu eban—, abots lodiakaz, onelango abesti-sorta andia daukogu ta gatx egingo jakuz abots bietariko abestiak. Baiña bai ziur sorta orretaz gertuko doguz, ereski batzuk gizon ta andrazkoen abotsetara aurkeztu ta abesteko".

Zornoza'ko Erti-lan Abesteldean buruausterik andie-na da Abesbatzak irautea. "Gure Abestaldean gaztedia falta jaku, gazteak utsegiten deuskue. Eta arrazoi bigaitik, gogo sendo bat artu daien gugaz kantauteko atsegin izango neuke oraingoz aldirako bizia deukan Abestaldeari jarraitasuna emotea ta Jaun Erriko zaletasuna oikuntza, erri-jakintza zaindu ta eutsi geure izakeraren susterretik datorrena da-ta".

Amabi urte geroago, alkargoak tokia aldatu eban, andrak taldea itxi eben. Orain, ogei urte geroago, Zornoza'ko Abestalde aurrerantzen da aupada irukotxagaz: beti izan dan abesbatza zaindu, orain sortu diran abots zuriak (andrazkoenak) indartu eta bietariko ereski nastuak, garai batzuetan abesteko, eratu, alkartu ta bateratu.

LETONA'K



## KOKOAK GOSEA KENTZEN

Igaz, 8 milloi mamarrok lagundu eutsen lugiñai janaria emoteko Irugarren Munduko 29 laterri txiro-gosekillai.

Ottawa'ko Araudi Billaketa Entomology Erriarten taxonomistek beti dabiltz lanpetuta ta zeregin korapilla-tsuan munduko biztanle mamarroak motetan ipinten. Urteak zear batu edo pillotu dabez orain arte 9 milloi koko-mamarro 95.000 ordezkari dirala eta ori da munduan dan sorta andien ta oituzkoena.

Kokoen ikastea, antxiñakoa antza danez, eguneroko igazaldi bizia bertatik datorrelako, garrantzi, ardura andi-koa da, batez be... Irugarren Munduako milloiak gizaki gosedunak janaritzeko. Mamarroen ausi eziñezko bizia barik, izadiaren egitamua alditxarrean jausiko litzake. Abere ta landeredi biziaren, ondar eta zabarreriak aldazte barik geratuko litzakez, eta gai-bizidunak, zugatzlandaren auts-polen ugarikorrak eta, abere erreñu bizi-rako janari katea ez litzake ibilliko, izadian kalte andia egiñaz.

Jakintzaren onuraz ganera, koko-mamarroen ikas-teak ekonomi-dirutza arazoetan oiñarrizko balioa deuko. Jakitunak IERI itz labur onetan moltsoturik, billaketa, arakatze ta azterketa sakon-sakonez diardue, izadiaren aberastasun, ondasun ta ugaritasun-ikuspegia, lurrezko biziari osoro dagokiona, andizka ta beren berariz gizaki ta erri txiroen goseari eskintzeko. Taxonomisten azken jo-mugea koko-mota guztien ezaguera ta izen-

datzea da ta erabatera, euren banatze, izakerea, janaria ta ekonomi ardurea, gora-bera, giro artu-emonaren albistari, barri-emoillea izaten dira.

Mamarroek garrantzi agiria daukie janarigintzan, zugatz, landara, baso, oian, eta abere, egazti ta arraiñen janari-kateetan.

Ottawa'ko jakintsuak Trinidad'en idazgelak daukazan Common-wealth Institute of Biological Control'ekin zearo ones-onean bear egiten dabe. Emendik, ta Suizan, Indian, Pakistan'en, Argentinan ta Aprika-Sorkaldean laterri oneitan daukezan etxe-lagunetatik, 90 entomologistak aztertzen ta arakatzen dabez berezko arerioak kokoen izurria eragozteko.

Igaz, bialdu ebezan 8 milloia koko "onak" 29 erriko lugiñentzat, mendi-injeneru ta, baso-zañentzat. Onein egin-kizuna sarriaskotan arriskiduna ta galbidetsua da. Jakintsu bi CIBC'ren lagunkide Amazonas'tik etorri dira. An aurkitu dabezen koko-zomorro batzuk ur-orlegiren berezko arerio onurazkoak dira, onelango urak baitu, eta osasungarritu egiten dabezalako, baita milloia are lur aberatsak be Indian, Pakistan'en, Nilo ibaian ta Congo'ren arru ta basterretan.

Koko, zomorro, mamarro alkartuak izkillu alduna dira Irugarren Mundu gosedunaren janarien aide jokatze.

EGILUZE'K

### "ZER"

"ZER" zoroaldi zoroenen ume txiroa, maitasun utsaren lekukorik garbiena, iltera doan mintzoaren arnas beroa birao baltzez zikin deuee eure izena.

Benetan fiña euskal aundikien agoa, mingots atxake jaunori ain sendo aizena, arrokeriz ok jaukek euren olio biroa iruntzi eziñik ire burdinen kemena.

Euskal Lege Biltzarrak ilda ikusi nai au oso pobrea bait aiz ain Zeru Aundirako ta diruz betekoen artean zer aiz i "ZER"?

Zer i? Aberri miñaren erakusgai eder, atzez ez daian gure burdiaren larako ta euskal senaren mintegietako garau.

A. BIDAGUREN

Latiegi jaunak DEIA'n idatzitakoa irakurri ondoren, amorru biziz, egiña.

### EGUN URRATZE

Lenengo txio txintadapean urratu da zeruaren itzala ta, esnaldiko urdin-artean egunbideak gorpuztu dira.

Landa, ibar ganetan, basoen lurruna edatu da, gainbera, ta, an, urruneko osertzean illargia doa ostentzera.

Ba-dirudi egunaz batera gure biotzak alaitzen dirala !ta, euzki argia datorrela guri bizi-poza emotera!

Olaxe argi gozo legunak bizkortzen ditu gure ametsak, gure indar ta, itxaropenak, obeagoturik gure izantzak.

MUNIATEGI-TAR SABIN



**AMETS ZORAGARRIA**

Biotz ikara gozo batek  
itzartu nau gaur goizean,  
poz aundi, atsegin zoragarria  
nabaitzen dot neure barruan

Egazkada luze baten aingeru  
bat bezela noa laño artean.

An goi goian zeruak azkenik  
ez daukan lekuan,  
ikaragarritzko argitasunaren erdian,  
ikusi dot Egillearen irudia  
beren betiko aunditasunean,

Nai dot asetu neure arimea  
bakean, betiko zure altzuan.

**BAKEAREN IXILTASUNA**

Arratsberan, oñez, neure.  
goguaren bide zuzenetik  
barneko izketa gozuan,  
aizeak arpegia igurtzurik  
noa bidean aurrera  
aizearen laztana arturik.

Altuetan zeru garbia  
Egillearen edertasuna agerturik  
doa oldozmena bakearen  
ixiltasuna aurkitu nairik

Neure goguaren naia  
bakea da beti  
neure otoiak zugana  
Jauna doaz eskari  
maite dotalako askatasuna,  
bakea, oi neure Euskalerrri.

**UDAKO GOIZA**

Itzartu naiz bai, gaur  
goizeko egun sentian  
biotza daukat alai  
barru barruko poztasunian,  
eguzkiaren lenengo argitasuna  
sartu da nire gelan  
eta aize presko onuragarriak  
mosu daust espanian,

Ez ain urrun txori abeslari  
batek, diraust bere abesti gozuan  
ze maite dot askatasuna biotzean

Egaz dagi nire oldozmenak or goietan  
gaur goizeko egun eder onetan  
askatasuna aurkitu nairik  
txori abeslariaren antzean.

**NEURE ERRIA**

Gauza guztien ganetik dot  
maite neure lurra,  
izan daigun beti maite  
norberaren jaiotz erria,  
ama batek daben lez  
bere biotzeko semia.

Dan dana emongo dautsat  
baita ere eriotzea  
eskatu iñoz ezer ez  
ez bada eskatasuna

Zertarako bizi mundu onetan  
beti izateko etsaia?

**NIRE LAGUN ITSUA**

Gela batean bakardadean  
ixiltasun aundiaren erdian  
ingurua dago bakian,  
begiak zabalik baña  
dana illuna aurrian  
zertarako nai dot argia  
ezer ez badot ikusten illunian.

Lengo munduko irudiak  
dan danak daukadaz buruan  
gurasoak, munduaren edertasunak,  
nire pentsamentua zuekaz dago benetan  
juandako bizitza atzera bidean.

Jauna, gau luzearen amaia  
noiz izango da betiko bakean?

**EGARRINAIZ**

Neure goguaren egarria  
nabaitzen dot barnean  
ixil unean bakar bakarrik  
nai dot egon bakardadean.

Otoi bero bat biotzean  
sakonetik maitetasunian  
doa goruntz bat batean,  
egarri naiz Jauna  
zugan gura dot edan  
betiko bizi lekuan.

JERARDO ABOITIZ

## OTO INDARTSUA

Oto patxada ederrean eguneroko aldizkaria dago. Bai ba, gaur jaia da-ta, atsedena pozgarriago. Andre Joxepa, barriz, urduria berez, geldi egon ezin. Ba dau ganbaran kutxa aundi bat traste zaarrez gaiñezka: umetxo zanezko andrakoak be bai. Axe ekarri nai dau, olloak lez azterka aztarrikan ekiteko bere barruan:

—Aizu, senartxo, ganbarako kutxa zaarra ekarriko dautazu? Egizu, maite orrek.

Otok berbarik be ez. Erantzunik be ez. Donosti eta Bilboko kopa-partidua irakurten diardu: Sarabiak orduantxe gola sartu Arkonadari. Eta, zelako gola...!

—Senartxo, jatsixu kutxatxua...

—Itzi egiztazu bakean.

\* \* \*

Aurrera biderik ez dagoela pentsaten dau Andre Joxepak; baiña, bat-batean argitxu bat biztu jako bere garunetan:

—Bai, jakiña, arro ibiltzen zara zu zeurelako indarrrik iñork ez daukalako... Perurenan beste ei zara... Zeu baiño makalago iñor bez auzo guztian... Itzak ederrak eta berba galantak, besterik ez. Kresalaren aparra baiño geiago, ez. Arrotasunez burua bete dozu...

—Arrua neu...!?

—Bai, arro utsa. Zeure indarrok joan zirian ikutara... Kutxatxo bat ganbaratik ona ekarteko be ez zara.

—Ez nazela? Berton ikusiko don.

Io dau ganbarara arin-aringa eta ba-dator, trenarena lako arnasegaz, traste zaarrez beteriko kutxa bizkarean dauala:

—Amen non diran neure indarrak, bizi-bizirik oraidiño eta gordiñik...!

\* \* \*

Andre Joxepa sukaldean barrezka, gizonak panparroi-iñusente batzuek besterik ez diralako.

ARRINDA'TAR ANES

### ZELAKOA ETE?

Gaur zero zabalak illargiaren argira ba dirudi olaturik bako itxasoa. Eme-eme dabil aize zurien egoa ta ur izurretan dantzan izarren dizdira.

Ametsen egalean nagokio begira irakiten barruan arraunlari gogo. Emen naiz arima ta soin itxas-minak joa noiz joan aal izango urdinen andira.

Bere bits izurretan gura neuke nik leku izarrekin bat areatza barrien billa ta illargia esku bete kantuz koroitu.

Zelakoa ete dozu bestaldeko ertza misterioz beteko itxaso biribilla? Bake leguneko ala erauntsiz zorrotza?

A. BIDAGUREN

### EGUZKIA ETA IZARRAK

"Illunabarra...

Eguzkia asten da jetxitzen, jetxitzen...  
dizdizera ederrak  
zaizkala gutxitzen,  
diamantezko printzak  
zaizkanean galtzen,  
urrezko bola baten  
itxurak du artzen  
eta geldi-geldikan  
itxaspean sartzen..."

(Euskal abestia)

Malkoak dagizu  
joan dalako eguzki...?  
Malkoak begietan,  
izarrik ezin ikusi.

(R. Tagore)

"Zergaitik, zergaitik, zergaitik, zergaitik,  
zergaitik negar egin...  
Zeruan izarrak dagoz  
itxaso aldetik."

(Euskal abestia)

ARRINDA'TAR ANES

---



---

## JUANTXO-TXIKI NORDUN (12)

---



---

—Aizu, txiki...! Esan neutson Juantxo-txikiri lengo egun batean.

—Ni ez naiz txiki; txikia nire anaia da. Ni aundia naiz...

Benetan txikia da gure umetxoa eta iñoren aginpean egotea bearrezkoa dau; alan be, bere burua aundi ikusi gura dau.

Aundi izatea gura.

Eta bidean doa.

Bide orretan Jainkoak berberak ipiñi eban Juantxo-txiki, sortzetik ipiñi be.

\* \* \*

*Aundia izateko gogo*a ume txikienak be agertzen dau tarteka-tarteka. Aundi izatea, norbere buruaren jabe izatea, persona izatea da.

Nortasuna izatea.

Nordun izan.

Orretarako jaio jaku Juantxo-txiki. Ortik sortzen jaku umeari bere barnean, persona serio lez tratatua izateko guraria be... Ortik era askotako protestak be. Amalau urte inguruan agertuko jaku protestarako miña eta gogo bizia; baiña, txiki-txikitatik datorkio min ori.

Asiera asieratik zure umetxoa persona eta nordun lez tratau bearko dozu. Protesta onein ardurarik ez badozu, aldenduko jatzu Juantxo-txiki eta galdu egingo dozu.

\* \* \*

*Umetxoa ez da zure otsein*, ez eta zure menpeko bat ere, txikia eta ergela izan arren eta zure bear-izanean bada be. Gogo askearen argitxoa badau bere barruan; askatasunaren argia. Adimenaren argi askatzaille ori begien aurrean izan bearko dozu beti.

Gero eta geiago. Beti doa aurrera bere bidean eta adiñean, nortasunaren billa. Ez da betirako robot eta panpin bat. Ez andere eta andrako ere. Zuk lagunduta, robot izatetik persona izatera aldatu bearko dau.

Gero eta askatasun geiagoakin ezi; berberak bere buruari zelan agindu bear dautson erakutsiaz. Orixe izango da umetxoa ondo ezitea.

Indarrez zeure menpean umetxoa eukitea, ori da biderik errezena eta samurrena gurasoentzat; baiña, txarrena eta gaitxena umearentzat. Alderantziz be bardin da: askatasunaren bidea gurasoentzat zailena eta gaitxena; umearentzat, ostera, onena. Eta Juantxo-txiki ondo eziteko bide ori artu bearrezkoa da.

\* \* \*

*Biarko gizona, gaur ume*; zeure bereganako artu-emonetan gizon lez erabilli egizu biar gizon-emakume izango dan gaurko umea; astantzean errudun gertatuko zara une askoengan eta Juantxo-txiki gizontzean, zeure erruak gogoan izango ditu, ez ume bateri egindako erruak lez, gaurko gizonari egindakoak lez laiño.

Umeari atzo egindako okerrak Juantxo gizonak berari, gaurko gizon nagusiari, eginda lez gogoratzen dauz.

Orra korapillo latza eta prolema gaitza: Juantxo-txiki ez da gizon eta, alan be, gizon lez tratau bear dozu.

Colón de Larreátegui, 14 - 2. dcha. BILBAO-1


# Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoian, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,  
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,  
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,  
batez be, emoneko berba lez daroan  
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.  
Itxasoaren oldarra gelditzen,  
gizonaren neurribako  
alegiña:

**BIZKAIKO**  
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS  
**VIZCAINA**

**Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.**